

Teknologia digitalek hainbat modutara bikaindu eta hobetu ditzakete ikaskuntza- eta irakaskuntza-estrategiak. Dena den, edozein estrategia edo ikuspegi pedagogiko aukeratzeko delako ere, irakaslearen gaitasun digital espezifikoak teknologia digitalen erabilera ikaskuntza-prozesuaren fase eta testuinguru guztietan eraginkortasunez antolatzean datza. Arlo honen –eta agian esparru osoaren– funtsezko gaitasuna **3.1: Irakaskuntza** da. Ikaskuntza-prozesuaren etapa guztietan teknologia digitalen erabilera diseinatzeari, planifikatzeari eta aplikatzeari egiten dio erreferentzia gaitasun horrek.

3.2 eta 3.4 gaitasunek gaitasun hori osatzen dute, eta nabarmentzen dute teknologia digitalen benetako ahalmena irakaskuntza-prozesuaren arretagunea irakasleak gidatutako prozesuetatik ikaslearengan oinarritutako prozesuetara aldatzean datzala. Hortaz, gaitasun digitala duten irakasleen eginkizuna ikasleen tutore eta gidari izatea da, ikasleak poliki-poliki gero eta autonomoagoak bilakatu ahala. Alde horretatik, gaitasun digitala duten irakasleek gai izan behar dute beste modu batzuetara diseinatzeko, teknologia digitzalek lagunduta, ikasleei banaka zein taldean orientazioa eta laguntza emate aldera (3.2), bai eta ikasleek erregulatutako (3.4) eta elkarlanean oinarritutako (3.3) ikaskuntza-jarduerak hasi, sostengatu eta ikuskatzeko ere.

# Irakaskuntza eta ikaskuntza



## Irakaskuntza

Gailu eta baliabide digitalak aplikatzea irakaskuntza-prozesuan, irakaskuntza-jardunbideak hobetzeko. Irakaskuntza digitaleko esku-hartzeak behar bezala egituratu, kudeatu eta antolatzea. Irakaskuntzarako formatu eta metodo pedagogiko berriak probatu eta garatzea.



## Orientazioa

Tresna eta zerbitzu digitalak erabiltzea ikasleekiko elkarrekintza –banaka zein taldean– hobetzeko, ikaskuntza-saioen barruan eta haietatik kanpo. Teknologia digitalak erabiltzea orientazio eta laguntza egokia eta espezifikoa emateko. Orientazioa eta laguntza emateko forma eta formatu berriak probatu eta garatzea.



## Elkarlanean ikastea

Teknologia digitalak erabiltzea ikasleen arteko elkarlana sustatu eta hobetzeko. Ikasleak trebatzea talde atazetan teknologia digitalak erabil ditzaten, komunikazioa, elkarlana eta ezagutza elkarlanean sortzeko gaitasuna hobetze aldera.



## Ikaskuntza autoerregulatua

Teknologia digitalak erabiltzea autoerregulatutako ikaskuntza-prozesuei laguntzeko, hala nola ikasleei aukera emateko beren ikaskuntza planifikatu, ebaluatu eta horretaz hausnartzeko, aurrerapausoak ikusteko, ezagutza partekatzeko eta sormenezko konponbideak bilatzeko.